



ALKIZAKO UDALA

**UDALBATZARRAK 2024ko MAIATZAREN 21EAN EGINDAKO EZ
OHIKO BILKURAREN AKTA**

2024ko maiatzaren 21ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Ana Agesta Echecolonea
Nagore Arizeta Garmendia

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
Eta Koldobika Jauregi Zinkunegi.

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

- 1. Alkizako Sormenaren Kabia: Deialdiaren hasiera eta oinarrien onespena.**
- 2. Alkizako Erretore etxeko eraikinaren teilatuaren eraberritze lanak kontratatzeko espedientea, baldintza administratibo partikularren agiria eta baldintza teknikoak onestea, prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio arruntaren bidez.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ALKIZAKO SORMENAREN KABIA: DEIALDIAREN HASIERA ETA OINARRIEN ONESPENA.

Ikusirik Alkizako Sormenaren Kabia Bekaren 2024 urterako deialdirako oinarriak prestatu direla.

Kontutan izanik, udal batzarkideek, aipaturiko deialdiaren oinarriak aztertu dituztela.



ALKIZAKO UDALA

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Sormenaren Kabia Bekaren deia egitea 2024. urterako.

BIGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2024ko edizioa gidatuko duten oinarri arautzaileak onartzea.

HIRUGARRENA: Sormenaren Kabiaren 2024ko ekitaldiko epaimahaia onartzea.

LAUGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren 2024ko edizioan hautagaiak aurkezteko epea ekainaren 1etik uztailearen 1era bitartean indarrean egongo da, bi datak barne.

BOSGARRENA: Sormenaren Kabia Bekaren oinarri arautzaileak Alkizako Udalaren eta Fagus Alkiza Interpretazio Zentroaren atarietan ikusgai jartzea. Hala, edonoren eskura egongo dira www.alkiza.eus eta fagus-alkiza.eus web orrialdeetan.

SEIGARRENA: 2.000,00 eurotako gastua onestea udal aurrekontuetako 480.172.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKIZAKO ERRETORE ETXEKO ERAIKINAREN TEILATUAREN ERABERRITZE LANAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA, BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA ETA BALDINTZA TEKNIKOAK ONESTEA, PROZEDURA IREKI ERRAZTUAREN BIDEZ ETA TRAMITAZIO ARRUNTAREN BIDEZ.

Kontuan harturik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela udal mugape honetako Alkizako erretore etxeke eraikinaren teilatuaren eraberritze lanak egiteko kontratua izapidetzea.

Ikusirik Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena, haren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dituen, lizitazioa arautuko duen dokumentazio teknikoan jasoz.



ALKIZAKO UDALA

Kontuan hartuz, 2024ko maiatzaren 14ko udal bilkura bidez, obren dokumentazio teknikoa onartu zela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 236.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz (2017SPKL).

Ikusirik kreditu atxikipena, aurrekontuko 1.0000.682.920.00.01 2024 aplikazioaren kontura, 59.597,41 eurokoa, tramitatu beharreko zerbitzuen kontratuaren balio zenbatetsia.

Ikusita obraren zuinketa-akta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL 2017-) 236. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

Ikusirik Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa.

Ikusirik kontratu hori arautuko duten administrazio klausula partikularren orriak onartu direla.

Ikusirik Udal honetako Kontu-hartzaitzak egindako fiskalizazioa.

Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat etorritz, Udalbatza dela kontratazio organo eskuduna.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- Alkizako erretore etxeko eraikinaren teilatuaren eraberritze lanak egiteko kontratua prozedura ireki erraztuaren bidez eta tramitazio arruntaren bidez kontratatzeko espedientea onartzea. Kontratuaren balio zenbatetsiari 59.597,41 euro dagozkio, eta 12.515,56 euro jasanarazi beharko zaizkio, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkionak, eta 12 asteko egikaritze-epea.

BIGARRENA.- Alkizako Udalaren 2024. urteko gastuen aurrekontuko 1.0000.682.920.00.01 2024 aurrekontu-aplikazioaren kargura 72.112,87 euroko gastua onartzea.

HIRUGARRENA.- Obra kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeko baldintza administratibo berezien agiria onartzea.



ALKIZAKO UDALA

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez esleitzeko prozedurari hasiera ematea, eta kontratazio-organo honen kontratatzailearen profilean dagokion lizitazio-iragarkia argitaratzeko agindua ematea, hogeiei eguneko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezten. 2017 SPKL 159.3).

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 19:15etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

